

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1982/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, ikerketako, garapen teknologikoko eta frogapeneko ekintzetarako Europako Erkidegoko zazpigarren esparru-programari buruzkoa (2007-2013 epea).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: « *Decisión nº 1982/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, relativa al Séptimo Programa Marco de la Comunidad Europea para acciones de investigación, desarrollo tecnológico y demostración (2007 a 2013)* » (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 412/1 de 30/12/2006*)

1982/2006/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 412/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

(Egintza hauek argitaratu egin behar dira, aplikagarriak izan daitezzen)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1982/2006/EE ERABAKIA, 2006ko abenduaren 18koa, ikerketako, garapen teknologikoko eta frogapeneko ekintzetarako Europako Erkidegoko zazpigarren esparru-programari buruzkoa (2007-2013 epea)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzen duen tratatua, eta, bereziki, haren 166. artikuluko 1. paragrafoa aztertuta,

Batzordearen proposamena aztertuta,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertuta ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertuta, ⁽²⁾

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz ⁽³⁾,

Kontuan hartu dira hauek:

(1) Erkidegoak, tratatuak adierazitakoari jarraiki, helburutzat hartu du Erkidegoko industriaren oinarri zientifikoak eta teknologikoak indartzea, nazioartean oso lehiakorrek izango direla bermatzeko. Helburu hori lortzeko beharrezkotzat jo daitekeen ikerketa-jarduera oro sustatu behar du Erkidegoak, eta, bereziki, ikerketa-jarduerak egiteko eta garapen teknologikoa lantzeko bultzada eman behar die enpresei, enpresa txiki eta ertainei barne (ETE). Horiek horrela, eremu eta proiektu hauek lehenetsi behar dira: balio erantsia dakartenak eta Europako finantziazioa eta lankidetzat behar-beharrezko dutenak. Erkidegoak helburu hauek lortu nahi ditu, jakintzari, ikerketa aplikatuari eta berrikuntzari ematen dion babesaren bidez: batetik, Europako ikerketaren sinergiak garatzea, eta bestetik, behin sinergia horiek garatuta, Europako ikerketa-esparrurako oinarri sendoak ezartzea. Ikerketa-esparru hori lagungarria izango da estatu kideen garapen ekonomikoa, kulturala eta soziala sendotzeko.

(2) Kontseilu Europarrak 2000ko martxoaren 23an eta 24an Lisboan egin zuen bilkuran, ikerketak berebiziko garrantzia duela aitortu zen, eta Europar Batasunaren beste helburu estrategiko bat ezarri zuen hurrengo hamarkadarako: jakintza oinarritzat hartuta, munduko ekonomia lehiakor eta biziena izatea, eta modu iraunkorrean hazteko gaitasuna izatea. Bide hori jorratzeko, enplegu gehiago sortu behar dira, kalitate onekoak, eta gizarte-kohesioa handitu. Jakintzaren triangela — hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza — funtsezko tresna da helburu hori lortzeko, eta, ildo horretatik, ikerketako eta berrikuntzako gaitasunak sustatu eta indartu nahi ditu Erkidegoak. Zazpigarren esparru-programak berebiziko garrantzia du, beraz, estatu kideen eta Europako industriaren ahaleginak osatzeko.

(3) Lisboan finkatutako estrategiarekin bat eginez, hau adostu zuen Kontseilu Europarrak 2002ko martxoaren 15ean eta 16an Bartzelonan egindako bilkuran: handitu egin behar dela Europar Batasunak ikerketan eta garapen teknologikoan («IGT») eta berrikuntzan egiten duen gastu globala, BPGren %3ra hurbiltzeko 2010ean, eta zenbateko horren bi heren inbertsio pribatuak izan behar direla.

(4) Zazpigarren esparru-programaren helburu nagusiak Europar Batasuna munduko ikerketa-esparru garrantzitsuena bilakatzea izan behar du. Beraz, zazpigarren esparru-programak lehen mailako ikerketa bultzatu behar du mundu-mailan, eta, horretarako, ikerketa-prozesuaren bikaintasunean oinarritu behar du.

¹ C 65, 2006.3.17koa, 9. or.

² C 115 EO, 2006.5.16koa, 20. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko maiatzaren 5koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko irailaren 25koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko azaroaren 30koa (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea). Kontseiluaren erabakia, 2006ko abenduaren 18koa.

1982/2006/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 412/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(5) Europako Parlamentuak behin eta berriz nabarmendu du ikerketak eta garapen teknologikoak garrantzi handia dutela garapen ekonomikoan eta gizarte- eta ingurumen-ongizatean, eta jakintzak gero eta zeresan handiagoa duela esparru horretan. Bereziki, xedapen honek jorratzen du ildo hori: 2005eko martxoaren 10eko Ebazpenak, zientziari eta teknologiarri buruzkoak — Batasunak ikerketa babesteko politikan bete beharreko orientabideak ⁽¹⁾.

(6) Erkidegoko politika guztiek dituzten ikerketa-beharrak kontuan izanik, eta industriak, zientzia-elkarteak, unibertsitateak eta Europako beste elkarte interesdunek emandako babes aintzat hartuta, Erkidegoak helburu zientifikoak eta teknologikoak ezarri behar ditu. Helburu horiek zazpigarren esparru-programan lortu behar dira, 2007 eta 2013 bitartean.

(7) Europako plataforma teknologikoak eta ekimen teknologiko bateratuak bereiziki egokiak dira industria-ikerketarako. Hori dela eta, ETEek gogoz lan egin behar dute jarduera horiek aurrera eramateko. Europako plataforma teknologikoek epe luzeko ikerketarako plan estrategikoak prestatzen laguntzen diete alderdi interesdunei. Plataforma horiek Europako lehiakortasuna sustatzeko tresna orokorrak izatera hel daitezke.

(8) Zazpigarren esparru-programako helburuak aukeratzeko, seigarren esparru-programako lorpenei erreparatu zaie, eta helburu horien xedea da zenbait urrats egitea Europako ikerketa-esparrua sortzeko. Helburuek, gainera, Europan jakintzaren gizartea eta ekonomia indartzeko xedea dute, Lisboako strategiako helburuak bete daitezen, erkidego-politika guztietan. Zazpigarren esparru-programako helburuen artetik, hiru hauek nabarmendu behar dira:

— nazioz gaindiko lankidetzaren maila guztietan babestea Europar Batasunean;

— Europako ikerketa-jardunaren dinamismoa, sormena eta bikaintasuna indartzea jakintzaren mugetan, eta zientzialariek, sektore horretan, ikerketaren orientabideak zehazteko duten ardura eta independentzia aitortzea. Aurrekoa kontuan hartuta, zazpigarren esparru-programaren lehentasuna izan behar da oinarritzko ikerketa espekulatiboagoa finantzatzea.

— ikerketarako eta teknologiarako giza ahalmena indartzea Europan, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Hauek dira helburu hori lortzeko tresnak: ikerketa-arloan hezkuntza eta prestakuntza hobea ematea, ikertzeko aukerak ematea eta ikertzaileen «lanbidea» onartzea, ikerketa-jardueretan emakumeen presentzia nabarmen handituz, ikertzaileen mugikortasuna sustatuz eta haien karrerak garatuz. Ikertzaileen Europako Gutunean azaltzen diren printzipioei eta ikertzaileak kontratatzeke jokabide-kodeari esker, ikertzaileen benetako lan-merkatu bat sor daiteke Europan; beti ere, ikerketa-jardueraren borondatezko izaerari eutsiz. Gainera, Europako ikerketa-erakundeak eta unibertsitateen bikaintasuna garatu eta indartu behar da.

(9) Zientziaren eta gizartearen arteko elkarrizketa sakondu behar da Europan, hiritarren kezke arduratuko den zientzia-eta ikerketa-programa bat garatzeko. Halaber, hausnarketa kritikoa sustatuz ere indartu behar da elkarrizketa hori, zientziarekiko konfiantza berreskura dezan jendeak.

(10) Ikertzaileen ibilbide zientifikoa sendotzeko ahalegin berezia egin behar da, beren bizitzako etapa emankorrenean. Ikertzaileak, beren lan-ibilbidearen hasieran, Europako zientzia-bektore garrantzitsu bihurtu daitezke.

(11) Kuantitatiboki eta kualitatiboki indartu behar dira Europa osoko ikerketarako eta berrikuntzarako gaitasunak.

(12) Funtz publikoak finantzatutako ikerketa-jarduerak sortutako jakintza zabaltzea bultzatu behar da.

(13) Helburu horiek lortzeko, lau ekintza hauek bultzatu behar dira: politika arloko gaien nazioz gaindiko lankidetzaren («Lankidetzaren» programa), ikertzaile-elkarteen ekimenez ikertzaileak bultzatutako ikerketa («Ideiak» programa), ikertzaileei emandako babes indibiduala («Pertsonak» programa) eta ikerketa-gaitasunei babes aintzat hartzea («Gaitasunak» programa).

(14) Batasunean eta Batasunetik kanpo, «Lankidetzaren» programaren bidez, nazioz gaindiko lankidetzaren babesteko da dagokion eskalan, jakintzen eta teknologien aurrerabiderako zenbait gai-multzotan. Alor horietan, ikerketa babestea eta indartzea komeni da, Europak dituen gizarteko erronkak, erronka ekonomikoak, ingurumenekoak, osasun publikokoak eta industriako erronkak gainditzeko, interes orokorraren alde lan egiteko, eta garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko. Ahal den neurrian, programa malgu izango da, lekua egin behar baitie lehentasun tematikoekikiko zeharkakoak diren zenbait xederi.

¹ C 320 E EO, 2005.12.15ekoa, 259. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(15) «Ideiak» programaren bidez, Europako Ikerketa Kontseiluak (EIK) egingo ditu bertako jarduerak. Kontseilu horrek autonomia handia izango du Europan maila altuko jakintzaren mugetako ikerketa garatzeko; ikerketa horrek Europar ereduko bikaintasuna bete behar du, eta horrela, haren profila nabarmendu nazioartean. EIKak harremana izan beharko du Europako erakundeekin eta zientzia-komunitatearekin. Zazpigarren esparru-programako tarteko ebaluazioak EIKko egiturak hobetzeko beharra adieraz dezake, zuzenketen bidez.

(16) «Pertsonak» programaren bidez, pertsonen ikertzaile-lanbidea aukeratu dezaten eta Europako ikertzaileek Europan lan egiten jarrai dezaten bultzatu behar da, mundu osoko ikertzaileak gure kontinentera erakarri behar dira, eta Europa erakargarri bihurtu behar da ikertzaile onenentzat. Aurreko esparru-programetan «Marie Curie ekintzekin» izandako esperientzia onak ikusita, «Pertsonak» programak hau guztia egin behar du: norbanakoa ikertzaile-lana hautatzera bultzatu behar du, eskaintza eta ikertzaileen prestakuntzarako aukerak antolatu behar ditu, Europako ikertzaileek bertan lanean jarrai dezaten saiatu behar du, eta bestela, alde egin duten ikertzaileak Europara erakarri behar ditu, sektorearteko mugikortasuna sustatu behar du, eta mundu osoko ikertzaileak gure kontinentera erakarri behar ditu. Ikertzaileen mugikortasuna beren ibilbide profesionala garatzeko funtsezkoa izateaz gain, herrialdeen eta sektoreen artean ezagutzak banatzeko eta transferitzeko ere garrantzitsua da. Era berean, garrantzitsua da mugikortasuna izatea, bermatzeko ikerketa berritzaileak eta hainbat diziplinatan jakintzaren mugetan dagoenak, ikertzaile gaituak eta beren lanean buru-belarri sartutakoak dituela.

(17) «Gaitasunak» programan, komeni da ikerketarako azpiegituren erabilera eta garapena optimizatzea, ETEek berrikuntzarako duten gaitasuna indartzea eta berrikuntza horiek ikerketarako erabiltzea, ikerketak bultzatutako eskualde-multzoen garapena babestea, Batasuneko konbergentzia-helburuko eskualdeen eta eskualde ultraperiferikoen ikerketa-ahalmen potentziala osorik garatzea, zientzia Europako gizarteari hurbiltzea, maila nazionalako ikerketa-politiken garapen koherentea babestea, eta nazioarteko lankidetzarako ekintzen eta neurrien garapen koherentea babestea.

(18) Ikerketa-zentro bateratuak (IZB) bezeroari bere beharraren arabera babes zientifikoa eta teknologikoa eman behar dizkio, erkidego-politikak sortu, garatu, praktikan jarri eta berrikusteko. Zentzu horretan, baliagarria da IZBk Europar Batasunean egiten duen lana, zientziaren eta teknologiaren alorrean erreferentziazko zentro independentea den aldetik, bere eskumeneko sektorean.

(19) Eskualdeek oso zeregin garrantzitsua izan dezakete Europako ikerketa-esparrua bultzatzerakoan. Teknologiaren esparruko diferentzia handiak murrizteko eta Europaren lehiakortasuna handitzeko oso lagungarriak izango dira, batetik, eskualdeen garapen-aukera guztiak baliatzea, eta, bestetik, esparru teknologikoan egindako ikerketen eta garapen-jardueren zabalpen handia egitea.

(20) Zazpigarren esparru-programak estatu kideetan egin diren jarduerak osatzen ditu batetik, eta bestetik, Lisboako helburuak lortzeko egin behar diren esfortzu estrategiko globalerako erkidego-ekintzak. Azken jarduera horiekin batera, Lisboako helburuak lortzeko xedeari lotzen dira egitura-funtsek finantzatutako jarduerak eta nekazaritza, arrantza, hezkuntza, prestakuntza, lehiakortasun eta berrikuntza, industria, enplegu eta ingurumeneko arloei lotutako jarduerak.

(21) Esparru-programa honek sinergiak lortu behar ditu eta osagarria izan behar du Erkidegoko beste programa eta politikekin eta, horrez gain, erronka honi erantzun behar dio: ikerketa-jardueren finantzazioa indartu eta sinplifikatu behar ditu, garrantzi handikoa baita enpresa txiki eta ertainentzat.

(22) Zazpigarren esparru-programak ETEen parte-hartzea bereziki bermatu behar du, eta horretarako, neurri zehatzak eta ekintza espezifikoak zehaztu behar ditu. Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako esparru-programan egindako jardueren osagarri izan behar dute esparru-programa honetako berrikuntza-jarduerak eta enpresa txiki eta ertainekin lotutakoak.

(23) Zazpigarren esparru-programako jardueretan parte hartzea erraztu behar da, eta horretarako, informazio egokia argitaratu eta prozedura sinpleak eta laburrak erabili behar dira. Argitaratu beharreko informazioa dagokion unean emateaz gain, erraz erabili behar dute erabiltzaile potentzial guztiek, eta prozedurek ez dute baldintza konplexurik izan behar finantza aldetik, eta beharrezkoa ez den informaziorik ere ez dute eman behar, esparru-programa honi ezar dakizkiokeen parte-hartzerako arauekin bat etoriz. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1906/2006 Erregelamenduak (CE), 2006ko abenduaren 18koak, xedatzen ditu arau horiek; zehazki, zazpigarren esparru-programako ekintzetan enpresek, ikerketa-zentroek eta unibertsitateek izan behar duten parte-hartzea arautzen du erregelamenduak, bai eta 2007-2013 epeko ikerketen emaitzak nola zabaldu behar diren ere ⁽¹⁾.

¹ Ikus Egunkari Ofizial honen 1. orrialdea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(24) Seigarren esparru-programan erabili ziren tresna berrien tarteko berrikusketara eta bost urtetik behin egiten zaion ebaluazioa kontuan hartuta, planteamendu berri bat zehaztu da. Planteamendu horren bidez, erkidegoko ikerketa-politikaren helburuak erraz, eraginkortasunez eta malgutasunez lortu behar dira. Horregatik, eta ekintzak egiteko laguntza emateko, «finantzazio-araubide» gutxiago eman behar dira eta sinpleagoak izan behar dira, izan ere, malgutasuna eta askatasuna ematen dute, eta haiek kudeatzeko autonomia eman behar zaie partaideei.

(25) Erkidegoko ikerketa-jarduerak egiteko premia handia dago, hainbat arrazoiren harian: interes handikoa da esparru-programako ekintzak egitea; esparru-programa honek handitu egingo du estatuen eta entitate pribatuen bidez lortutako finantzazioa; Erkidegoak aurre egin behar die erronka zientifiko eta teknologiko berriei; inolako diskriminaziorik gabe baliatu behar da bertako ikertzaile guztien ahalmena, Erkidegoaren zeregina funtsezkoa da Europako ikerketa-sistema eraginkorragoa izan dadin eta klima-aldaketari, iraunkortasunari eta Europako biztanleen osasun-arazoei irtenbidea emateko. Horrez gain, esparru-programak ekarpen handia egiten dio Lisboako estrategia biziberritzeko ahaleginari.

(26) Zazpigarren esparru-programa betetzean, programa osagarriak sor daitezke. Programa horietan, zenbait partaidetza-aukera izan daitezke: estatu kideek soilik har dezakete parte, edo Erkidegoak berak parte har dezake estatu kideek abiarazitako programetan; halaber, programa osagarri horien ondorioz, enpresa eta bestelako egiturak sor daitezke, Tratatuako 168., 169. eta 171. artikuluekin bat etorritik.

(27) Nazioarteko zenbait akordio adostu ditu Erkidegoak ikerketa-esparruan. Zentzu horretan, lan egin behar da nazioartean ikerketaren alorreko lankidetzari indartzeko, eta horrela, IGTaren internazionalizazioaren emaitzak jasotzeko, mundu-mailako ondasun publikoak sortzeko eta Erkidegoa mundu-mailako ikertzaile-taldean hobeto integratzeko.

(28) Badago dagoeneko garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen bizitza izugarri hobetu dezakeen jakintza zientifiko esanguratsuen corpusa. Esparru-programak, lehen azaldutako jardueren baitan, 2010erako Milurtekoko Garapen Helburuak lortzen lagunduko du.

(29) Zazpigarren esparru-programaren bidez, hazkundera, garapen iraunkorra eta ingurumenaren babesaren sustatu behar dira, eta, bereziki, klima-aldaketaren auzia landu behar da.

(30) Zazpigarren esparru-programako ikerketa-jarduerak funtsezko printzipio etikoak errespetu behar dituzte; printzipio horien artean daude Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunak biltzen dituenak. Zentzu horretan, Zientziaren eta Teknologia Berrien Etikari buruzko Talde Europarraren irizpenak hartuko dira kontuan. Halaber, ikerketa-jarduerak kontuan izan behar dute animalien babesari eta ongizateari buruzko protokoloa, eta gero eta animalia gutxiago erabili behar dituzte ikerketan eta esperimentazioan, animaliarik erabili behar ez izatea baita lortu nahi den helburua.

(31) Zazpigarren esparru-programan emakumeek zientzia- eta ikerketa-alarrean duten zeregina sustatuko da, alor horietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta haien parte-hartze aktiboa indartzeko ikerketan.

(32) Zazpigarren esparru-programa indarrean den bitartean, Erabaki honek ezarritako finantza-hornidura lehentasunezko erreferentzia izango da Aurrekontu Agintaritzarentzat; beti ere, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruz 2006ko maiatzaren 17an adostutako Instituzio arteko Akordioaren 37. paragrafoari jarraiki ⁽¹⁾.

(33) Halaber, Europako Erkidegoen interes finantzarioekiko neurri proportzionalak hartu behar dira, emandako laguntza finantzarioaren eraginkortasuna kontrolatzeko batetik, eta bestetik, funtsen erabileraren eraginkortasuna kontrolatzeko eta irregulartasunik eta iruzurrik ez gertatzeko. Gainera, akats baten ondorioz abonatu direlako edo gaizki erabili direlako galdutako funtsak berreskuratzeko beharrezko pausoak bete behar dira, erregelamendu hauei jarraiki: 2988/95 (EE, Euratom) Erregelamendua, Kontseiluarena, 1995eko abenduaren 18koa, Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoa ⁽²⁾; 2185/96 (Euratom, EE) Erregelamendua, Kontseiluarena, 1996ko azaroaren 11koa, iruzurren eta irregulartasunen aurka Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteko Batzordeak in situ egiten dituen kontrolei eta azterketei buruzkoa ⁽³⁾; eta 1073/1999 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1999ko maiatzaren 25koa, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) ikerketei buruzkoa ⁽⁴⁾.

¹ C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

² L 312 EO, 1995.12.23koa, 1. or.

³ L 292 EO, 1996.11.15koa, 2. or.

⁴ L 136 EO, 1999.5.31koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(34) Garrantzitsua da zazpigarren esparru-programaren finantza-kudeaketa egokia izango dela bermatzea, eta kudeaketan hori eraginkorra eta erraza izatea. Era berean, segurtasun juridikoa bermatu behar da, eta programa partaideen eskura jarri. Halaber, beharrezkoa da 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom), 2002ko ekainaren 25ekoa, Kontseiluarena, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari eragiten dion finantza-erregelamendua onartzen duena, betetzen dela bermatzea ⁽¹⁾, bai eta erregelamendua sinpletzeari eta hobetzeari buruzko eskakizunak ere.

(35) Tratatuko 163. artikuluari jarraiki abiarazi behar diren ekimenen helburua Europan jakintzaren gizartea eta ekonomia eraikitzen laguntzea dela aintzat hartuta, estatu kideak ez dira gai, beren kabuz, helburu horiek behar bezala betetzeko, eta, Tratatuko 5. artikuluan zehaztutako subsidiariotasun-printzipioari jarraiki, Erkidegoko neurriak egokiagoak izan daitezke helburu horiek lortzeko. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioa betez, helburu hori lortzeko neurriak xedatzera mugatzen da zazpigarren esparru-programa.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Zazpigarren esparru-programa onartzea

Ikerketaren eta garapen teknologikoaren esparruko («IDT») erkidego-ekintzen 7. esparru-programa hartzen da, frogapen-ekintzak barne («7. esparru-programazioa»), 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitarteko epealdirako.

2. artikulua

Helburuak eta ekintzak

1. Zazpigarren esparru-programak i)paragrafotik iv) paragrafora bitartean adierazten diren ekintzak babestuko ditu. Ekintza horien helburuak eta ildo nagusiak I. eranskinean zehazten dira.

i) Lankidetzaren nazioz gaindiko lankidetzaren bidez egindako ikerketa-jardueren tipologia guztiak babestuko dira, gaimultzo hauetan:

a) Osasuna

b) Elikagaiak, nekazaritza eta arrantza, eta bioteknologia

c) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

d) Nanozientziak, nanoteknologiak, baliabideak eta ekoizpenerako teknologia berriak

e) Energia

f) Ingurumena (klima-aldaketa barne)

g) Garraioa (aeronautika barne)

h) Zientzia sozioekonomikoak eta giza zientziak

i) Espazioa

j) Segurtasuna.

ii) Ideiak: «ikertzaileek esparru guztietan bultzatutako» ikerketa babestea, bai Europan lehiatzen diren talde nazionalak, bai nazioz gaindiko talde indibidualak egindakoa.

¹ L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

iii) Pertsonak: ikerketarako giza ahalmena eta garapen teknologikoa indartzea European, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki, eta mugikortasuna sustatzea.

iv) Gaitasunak: Europaren ikerketa- eta berrikuntza-gaitasunerako funtsezko alderdiak babestuko dira, esate baterako: ikerketarako azpiegiturak; ikerketak egiteko eskualde-taldeak; Batasuneko konbergentzia-helburuko eskualdeen eta eskualde ultraperiferikoen ikerketa-ahalmen potentziala osorik garatzea; enpresa txiki eta ertainentzat («ETE») egindako ikerketak ⁽¹⁾; «zientzia eta gizarteari» buruzko gaiak, politikak koherentziaz garatzeko laguntza; eta nazioz gaindiko lankidetzarako jarduerak «horizontalak».

2. Halaber, zazpigarren esparru-programak ikerketa-zentro bateratuak (IZB) burututako ekimen zientifiko eta tekniko ez-nuklearrak babestuko ditu (I. eranskinean zehazten dira).

3. artikulua

Programa espezifikoak

Programa espezifikoen bidez beteko da zazpigarren esparru-programa. Programa horiek helburu zehatzak eta esparru-programa betetzeko garapen-arauak finkatuko dituzte.

4. artikulua

Programei dagokien gehieneko zenbateko orokorra eta haien atalak

1. Erkidegoak zazpigarren esparru-programaren finantza-arloan izango duen parte-hartzearen gehieneko zenbateko orokorra 50 521 milioi eurokoa izango da. Honela banatuko da kantitate hori (milioi eurotan), 2. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako jardueren eta ekintzen artean:

Lankidetzak: 32 413

Ideiak: 7 510

Pertsonak: 4 750

Gaitasunak: 4 097

Ikerketa-zentro bateratuko ekintza ez-nuklearrak: 1 751.

2. II. eranskinean, 1. paragrafoko gai-multzoetako jarduerak bakoitzaren banakatzea azaltzen da.

3. Esparru-programa honetarako Erkidegoak izan ditzakeen finantza-partaidetzako modalitateak arautzen dira III. eranskinean.

5. artikulua

Erkidegoaren finantza-interesen babesa

2988/95 (EE, Euratom) eta 2185/96 (EE, Euratom) Erregelamenduak ezarriko zaizkie erabaki honen bidez finantzatutako erkidego-ekintzei, baldin eta Erkidegoko legedia urratu badute. Halaber, erregelamendu horiek ezarriko zaizkie programaren bidez hitzartutako kontratuaren izandako arau-hausteei ere. Azken kasu horietan, arau-hausteen arduraduna eragile ekonomiko bat izan behar da, eta, egitez edo ez-egitez, kalte bat eragin behar dio Europar Batasuneko aurrekontu orokorrari edo hark kudeatutako aurrekontuei, gastu bidegabe bat sortu izanagatik.

6. artikulua

Printzipio etikoak

1. Zazpigarren esparru-programa betez egin diren ikerketa-jarduerak guztiak oinarritzko printzipio etikoei jarraiki gauzatuko dira.

¹ Zazpigarren esparru-programan, enpresa txiki eta ertainentzat hartuko dira mikroenpresak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Ez dira esparru-programa honen kontura finantzatuko ikerketa-jarduerak:

- ugalketa helburu duten giza klonaziora zuzendutako ikerketa-jarduerak,
- gizakiaren herentzia genetikoa aldatzeko egiten diren ikerketa-jarduerak, aldaketa horiek hereditarioak izan badaitezke⁽¹⁾,
- ikerketarako edo zelula amak lortzeko giza enbrioioak sortzera bideratutako ikerketa-jarduerak, zelula somatikoen transferentzia nuklearrerako metodoa barne.

3. Gizakiaren ama zelulen ikerketa, helduena zein enbrioiena, finantzatu ahal izango da, proposamen zientifikoaren edukia eta estatu kideen zuzenbide-esparrua betez.

Gizakiaren ama zelula enbrionarioak ikertzeko finantzazio-eskaera orok eskakizun hauek bete beharko dituzte, dagokionean dagokiona: estatu kideetako arduradunek baimenen eta kontrolaren inguruan hartuko dituzten neurrien xehetasunak eta emango diren onarpenen edo onarpen etikoen xehetasunak.

Giza enbrioretako ama zelulak lortzeko, baimenak emateko prozesu eta kontrol-prozesu zorrotz bat bete behar dute erakundeek, organizazioek eta ikertzaileek, eta, uneoro, estatu kideen zuzenbide-esparrua bete behar dute.

4. Aipatutako ikerketa-esparruetan ematen diren aurrerapen zientifikoak direla eta, berrikusi egingo dira aurrerapen horiek, programa honen bigarren fasean (2010-2013).

7. artikulua

Jarraipena, ebaluazioa eta berrikusketa

1. Batzordeak jarraipena egingo du etengabe eta sistematikoki zazpigarren esparru-programa eta bere programa espezifikoak aplikatzen diren ala ez ikusteko, eta, aldizka, jarraipen horren emaitzei buruzko txostenak zabaldu eta ezagutaraziko ditu.

2. Beranduenez 2010ean, Batzordeak, kanpoko adituen laguntzarekin eta esparru-programa honetako eta bere programa espezifikoetako datuei erreparatuta, tarteko ebaluazio bat egingo du, seigarren esparru-programako ex post ebaluazioa aintzat hartuta. Ebaluazio horrek egiten ari diren ikerketetako jardueren kalitatea neurtuko du, bai eta programa kalitatez betetzen den eta kudeaketa kalitatezkoa den ala ez; horrez gain, ezarritako helburuak lortzeko egin diren aurrerapenak ebaluatuko ditu.

Batzordeak ebaluazio horren ondorioak eta bere oharrak ezagutaraziko ditu, eta, beharrezkoa bada, esparru-programa hau egokitzeko proposamenak egingo dizkie Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari.

Datu nahikorik bada, tarteko ebaluazioaren aurretik egoera-txosten bat egingo da, eta bertan azalduko dira zazpigarren esparru-programaren baitan abiatutako ekintza berriek izan duten efikaziari buruzko hasierako konklusioak, bai eta jardunbideak sinplifikatzeko egin diren ahaleginak ere.

3. Esparru-programa hau amaitu eta bi urteko epean, Batzordeak kanpo-ebaluazio bat egingo du, aditu independenteen bidez. Ebaluazioak alderdi hauek baloratuko ditu: esparru-programaren izatearen justifikazioa, programa nola bete den eta programak egindako lorpenak.

Batzordeak ebaluazio horren ondorioak eta egoki irizten dituen oharrak jakinaraziko dizkio Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari.

8. artikulua

¹ Gonadetako minbiziaren tratamenduari buruzko ikerketa finantzatu ahal izango da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hiru egunetara sartuko da indarrean erabaki hau.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

Europako Parlamentuaren izenean

Lehendakaria

J. BORREL FONTELLES

Kontseiluaren izenean

Lehendakaria

M. VANHANEN